

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 334700 KULTURA EKINTZA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 334700 ACCIÓN CULTURAL

### SAILAREN MEMORIA

### MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

#### I. MEMORIA

Administrazio publikoak bermatu egin behar du kultura jasotzeko aukera berdintasuna dagoela eta herritarren sormen nahiak zaindu behar ditu. Kultura herrikoiaren babesa eta kulturari nahiz sormenari lotutako enpresa proiektuen sustapena uztartu behar dira. Guztiek aberasten eta osatzen dute tokiko kultur ekosistema.

Hala, programa horren erdigunea da eragileek lurraldeko kultura mapa osatzen duten espazioetatik proposatzen dituzten ekimenak lantzea.

Hiru jarduketa lerro edo ardatz daude.

#### **1. LERROA Sormenari laguntzea, emakumeek egiten dutena bereziki sustatuz eta ezagutaraziz.**

Kultura eta Kirol Sailaren funtzioen artean dago sorkuntza artistikoa sustatu, potentziatu eta bultzatzea eta lurraldearentzako interesekoak diren kultur erakundeak eta pertsonak ezagutaraztea eta jarduerak bultzatzea. Eta, bereziki, Kultura Zuzendaritzari dagokio jarduera artistikoak bultzatzea eta arte eszenikoen, musikalen eta abarren arloan ikerketa eta hobekuntza bultzatzea.

Helburu horrekin, eta 1977an arte eszenikoen tailerra (TAE) sortu zenetik, Arabako Foru Aldundiak bertako antzerki irakaskuntza bultzatzen du.

Arabako TAEk administrazio kontratazio mota berri batekin hasi zuen 2022-2023 ikasturtea; Kultura Zuzendaritzaren zerbitzu gisa, hain zuzen ere.

TAE irakaskuntza programa bat da eta hainbat azpiprogramatan banatuta dago eta edukien eta jasotzaileen arabera bereizten dira: aktore profesionalen prestakuntza edo bokazio profesionala dutenena, 14 urtera arteko umeen programa eta gazteentzako antzerkigintza. Programazio hori ikasturte osoan zehar garatzen da eta irakasle

#### I. MEMORIA

La Administración Pública debe garantizar el derecho de acceso a la cultura en igualdad de condiciones y preservar las inquietudes creativas de la ciudadanía. La defensa de la cultura popular debe compaginarse con el estímulo a los proyectos empresariales culturales y creativos. Todos ellos enriquecen y conforman el ecosistema cultural local.

Así, este programa focaliza su atención en las diversas iniciativas que los agentes proponen desde los espacios que ocupan en el mapa cultural del Territorio.

Se establecen tres líneas o ejes de actuación.

#### **LÍNEA 1. Apoyar la creación haciendo hincapié en incentivar y visibilizar aquella realizada por mujeres.**

Dentro de las funciones del Departamento de Cultura y Deporte se encuentra el impulsar, potenciar y fomentar la creación artística, la difusión y la actividad culturales de personas y organismos culturales de interés para el Territorio. Y, en particular, corresponde a la Dirección de Cultura el impulsar la realización de actividades artísticas y la investigación y perfeccionamiento en el campo de las artes escénicas, musicales, etc.

Con este fin y desde 1977 que se crea el Taller de Artes Escénicas (TAE) Diputación Foral de Álava impulsa la enseñanza teatral en el Territorio.

El curso escolar 2022-2023 el TAE Araba ha iniciado su andadura bajo una nueva forma de contratación administrativa, como un servicio de la Dirección de Cultura.

El TAE, como programa docente, se estructura en varios subprogramas diferenciados tanto por sus contenidos como por sus destinatarios: formación de actores y actrices profesionales, o con vocación profesional, escuela de niños hasta 14 años y teatro para jóvenes. Esta programación se desarrolla a lo largo de todo el curso escolar, y es impartida por un

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 334700 KULTURA EKINTZA

kualifikatu eta espezializatuak ematen dute.

2022ko ikasturtea 300 matriculazioekin hasi zen. Zifra aldakorra izan ohi da ikasturtean zehar, altak eta bajak etengabe baitaude.

TAE arte eszenikoen arloko prestakuntza eta sorkuntzara bideratutako proiektu finkatua da, eta haurrak (hiru urtetik aurrera) zein pertsona profesionalagoak barne hartzen ditu. Adin aniztasun hori da hain zuzen ere proiektuaren ardatz estrategikoetako bat, hau da, publiko berriak sortzea.

Gainera, publiko berriak sortzeko eta lurraldean presentzia handiagoa izateko asmoz, aurten TAE bat sortu da Agurainen.

Jarduketa lerro horren esparruan gehitu behar da jada finkatuta dauden erakundeei ematen zaizkien dirulaguntzen bidez sortzen den sorkuntzaren babesa, eta bertan egiten den lana ikerketan, hezkuntzan eta kulturaren oinarrituta dago.

Zehazki, 2022an, guztira 19 dirulaguntza izendun kudeatu dira honako erakunde hauentzat: UNED, UPV/EHU, Arte eta Lanbide Eskola, Arabako eskualde zentroen Federazioa, Euskalerraren Adiskideen Elkarte, Barandiaran Fundazioa, Euskal Irudigileak Elkarte, Ortzai Antzerkia, Santa María la Real de Najera Patronatua, Hunkitu Arte: Poetak maiatzean, Paraiso Antzerkia, Arabako Kultura Bizia elkarte eta sei dirulaguntza Sarea sareko antzokientzat. Ekarpenak guztira 816.500 eurokoak izan dira, programaren aurrekontu partidaren % 38,42.

Dirulaguntza horietan guztietan genero klausulak sartu dira.

### **2. LERROA Arte adierazpenak eta kultura proposamenak hedatzea**

**Lerro honen lehen helburua kultura eskaintza propioa garatzea da, programazioetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea sustatuz.**

Kulturarako sarbide orokorra erraztu nahi da diskriminazioak deuseztatuz eta kultura eskubideak berdintasunean egikaritzea bermatuz.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 334700 ACCIÓN CULTURAL

profesorado cualificado y especializado.

Este curso 2022 se ha iniciado con 300 matriculaciones. Una cifra cambiante a lo largo del curso ya que hay movimiento continuo de altas y bajas.

El TAE es un proyecto consolidado destinado a la formación y creación en artes escénicas que abarca desde el público infantil (desde los 3 años) hasta un público más profesionalizado. Este abanico de edades sustenta otro de los pilares estratégicos del proyecto como es la creación de nuevos públicos.

Además, con el mismo fin de abrir de crear nuevos públicos y de tener más presencia en el territorio, este año el TAE ha comenzado su andadura en Agurain.

Añadir, en el marco de esta línea de actuación, el apoyo a la creación que se produce mediante la articulación de subvenciones nominativas a entidades ya consolidadas cuya labor gira alrededor de la investigación, educación y cultura.

Concretamente en el 2022 se han gestionado un total de 19 subvenciones nominativas a entidades como son: UNED, UPV/EHU, Escuela de Artes y Oficios, Federación de centros regionales de Álava, Real Sociedad Amigos del País, Fundación Barandiaran, Asociación Euskal Irudigileak, Teatro Ortzai, Patronato de Santa María la Real de Najera, Hunkitu Arte: Poetas en Mayo, Teatro Paraíso, Asociación Arabako Kultura Bizia elkarte y seis subvenciones a Teatros de la red Sarea. Aportaciones que suman un total de 816.500 euros, un 38.42% de la partida presupuestaria que mantiene este Programa.

En todas estas subvenciones se han incluido cláusulas de género.

### **LÍNEA 2. Difusión de las diversas expresiones artísticas y propuestas culturales**

**El primer objetivo de esta línea es desarrollar una oferta cultural propia, promoviendo que incluya una presencia equilibrada de mujeres y hombres en las programaciones.**

Se pretende favorecer el acceso global a la cultura, eliminando discriminaciones de acceso y garantizando en condiciones de igualdad el

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 334700 KULTURA EKINTZA

Horretarako eskaintza kultural propioa garatzen da eta programazioan lankidetzaren publiko-privatua sustatzen da.

Halaber, hainbat adierazpen artistiko hedatzen dira eta kritikoak diren eta kultura interpretatu eta bertan esku hartu dezaketen ikus-entzuleak sortzea errazten da.

Kultura Ekintzako unitateak kultura programazio propioa garatzen du urtero, zazpi ziklotan banatuta:

Arabako **Organo Jaialdia** erakustoki bat da. Jaialdiko kontzertuen bidez, Arabako ondare artistiko baliotsuak duen aberastasuna zabaltzen da. Urtero, Arabako Organo Jaialdia instrumentu preziatu hori daukaten Arabako herri batzuetara heltzen da. 2022an sei kontzertu antolatu ziren, nagusiki ekainean. Horietako hiru Gasteizen izan ziren, Karmengo elizan eta San Pedro elizan, eta beste hirurak lurraldeko beste leku batzuetan izan ziren. Organista gisa kontratatutako sei pertsonetatik hiru emakumeak ziren.

2022an, berrietasun gisa, programatutako kontzertuek, organoaz gain, beste elementu bat ere bazuten. Hala, parte hartu zuten organistek beste instrumentu batzuk jotzen zituzten artisten, Udal Bandaren edo abesbatza baten laguntza izan zuten. Guztira 35 emakumek eta 37 gizonek hartu zuten parte jaialdian. 800 pertsona inguruk gozatu zuten kontzertuez, eta horietatik bi heren (% 66) emakumeak ziren.

**Arabako Antzinako Musikaren Astea** Arabako Foru Aldundiak antolatzen dituen programarik sendoenetako bat da. Erdi Aroko, Errenazimentuko eta Barrokoko antzinako musikarik onena eskaintzen du urtero, nagusiki Europakoa, baina beste musika tradizio batzuetakoa ere bai. Iraileko lehen hamabostaldian antolatzen da. Zehazki, irailaren 2tik 10era izan da. 2022ko edizioan 14 musika kontzertu egin ziren lotutako bestelako ikuskizunak albo batera utzita (izendatutako programa+astea) eta agertokian 56 musikari egon ziren, eta horietatik 21 emakumeak izan ziren; hau da, guztizkoaren % 37,5.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 334700 ACCIÓN CULTURAL

ejercicio de los derechos culturales.

Para ello se desarrolla una oferta cultural propia, y se fomenta la colaboración público-privada en la programación.

Asimismo, se difunden las diversas expresiones artísticas propiciando la formación de audiencias con espíritu crítico y capacidad de interpretar e intervenir en cultura.

La Unidad Acción Cultural desarrolla anualmente una programación cultural propia contenida en siete ciclos:

El **Festival de Órgano** de Álava constituye un escaparate en el que, a través de conciertos, se difunde la riqueza que atesora el valioso patrimonio artístico alavés. Anualmente el Festival de Órgano de Álava se acerca a algunas de las localidades alavesas que cuentan con tan preciado instrumento. En el 2022 se llevaron a cabo 6 conciertos fundamentalmente en junio. 3 de ellos en Vitoria, en las Iglesia del Carmen y San Pedro, y otros 3 se programaron en el Territorio. De las 6 personas que fueron contratadas como organistas, 3 eran mujeres.

Este año, como novedad, los conciertos programados incluían además del órgano otro elemento. Así, las y los organistas participantes han contado con la compañía de artistas que tocaban otros instrumentos, la Banda Municipal o un Coro. En total han tomado parte en el festival 35 mujeres y 37 hombres. Cerca de 800 personas disfrutaron de los distintos conciertos realizados, de las que dos terceras partes, 66%, eran mujeres.

La **Semana de Música Antigua** de Álava, uno de los programas más consolidados de los que organiza la Diputación Foral de Álava. Ofrece cada año una muestra de la mejor música antigua medieval, renacentista y barroca, principalmente europea pero también de otras tradiciones musicales. Se celebra anualmente durante la primera quincena de septiembre, concretamente ha tenido lugar del 2 al 10 de septiembre. La edición del año 2022 ha contado con 14 conciertos musicales, al margen de otro tipo de actuaciones relacionadas (el denominado programa +semana) y 56 músicos sobre el escenario, de los cuales 21 han

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 334700 KULTURA EKINTZA

### **Musika Klasikoaren Zikloa**, Arabako Foru

Aldundiak Donostiako Musika

Hamabostaldiarekin elkarlanean antolatua.

Abuztuan sei kontzertu antolatu ziren, guztiak ere Gasteiztik kanpo. 20 artista kontratatu ziren eta horietatik zazpi emakumeak izan ziren.

### 2022an, “**Arabako plazetan, Arabako kale arteen zirkuitua**”-ren hirugarren edizioa egin zen.

Antzerki, clown, dantza eta zirkuko 39 ikuskizun programatu ziren, 23 konpainiaren emanaldiekin, maiatzetik urriaren 1era arte.

Konpainia horiek hainbat diziplinatako 72 artistak osatzen dituzte, eta horietatik 22 emakumeak dira.

Programa hori Artekalerekin, Euskal Herriko Kaleko Arteen Elkartearekin, koordinatu zen, eta elkarte hori arte eszenikoetako profesionalek osatzen dute. Programa hori oso-osorik lurraldean eta Trebiñuko enklabean gauzatzen da Gasteizen ez ezik, bertan kaleko arteen jaialdi propioa baitago. Guztira, 4.189 pertsonak bisitatu zuten zirkuitua, eta % 55 emakumeak izan ziren.

**Araiako jaialdiaren ibiltaritzari** dagokionez, honako datu hauek eman behar dira: 21 udalek parte hartu dute programan, bost kuadrillatako 24 herritan. 30 antzerki emanaldi programatu ziren. 4.700 ikus-entzule egon ziren gutxi gorabehera. Bederatzi konpainiak hartu dute parte aurren, gizonezko sei aktorez eta emakumezko 14 aktorez osatuta.

2022an, **MagialdiAraba** zortzigarren edizioa iritsi zen. Hasieratik magiaren arloan estiloa finkatu duen jaialdia izan da, ez bakarrik estatuan, baizik eta mundu osoan. Abuztuaren 26tik irailaren 11ra bitartean, 17 emanaldi eta tailer programatu ziren lurraldean, bost magoren eskutik. Programa hori kuadrilla guztietara iritsi da, Gasteizera izan ezik, ziklo propioa baitu.

**Korterraza** Arabako Lurralde Historikoko aire zabaleko film laburren jaialdia da. Kaleak eta plazak kulturaren inguruan biltzeko leku bihurtzen dira. Korterrazak herri guztiei eskaintzen die herri bakoitzean, aire zabalean, egin dituen film laburren

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 334700 ACCIÓN CULTURAL

sido mujeres, un 37,5% del total.

El **Ciclo de Música Clásica**, organizado por Diputación Foral de Álava en colaboración con Quincena Musical de San Sebastián. Durante el mes de agosto se han programado seis conciertos, ninguno en Vitoria. De los artistas contratados, 20 en total, 7 han sido mujeres.

En el 2022 tuvo lugar la tercera edición del “**Arabako plazetan**”, **Circuito de artes de calle de Álava**. Se han programado 39 espectáculos de teatro, clown, danza y circo, con la actuación de 23 compañías desde mayo hasta el 1 de octubre. Estas compañías las integran 72 artistas de diferentes disciplinas, de las que 22 son mujeres. Un programa coordinado con Artekale, la Asociación de Artes de Calle del País Vasco, asociación de profesionales de las artes escénicas. El programa se desarrolla íntegramente en el territorio y enclave de Treviño, a excepción de Vitoria, que cuenta con su propio festival de artes de calle. En total se estima que han podido disfrutar del circuito 4.189 personas siendo el 55% público femenino.

En cuanto a la **itinerancia del festival de Araia**, proporcionar los siguientes datos: 21 ayuntamientos han tomado parte en el programa en 24 localidades distintas de 5 cuadrillas distintas. Se han programado 30 representaciones teatrales. Se estima que han asistido aproximadamente 4.700 personas como espectadoras. 9 han sido las compañías que han itinerado en esta edición, formadas por 6 actrices y 14 actores.

**MagialdiAraba** ha llegado en 2022 a su octava edición. Desde sus comienzos ha sido un festival que ha marcado estilo en el panorama mágico, no solo en el Estado sino también en el resto del mundo. Del 26 de agosto al 11 de septiembre se han programado 17 actuaciones y talleres en el Territorio, por cinco magos. Este programa ha llegado a todas las cuadrillas, no incluyendo Vitoria que tiene su propio ciclo.

**Korterraza** es el Festival de cortos cinematográficos al aire libre a lo largo del Territorio Histórico de Álava. Una manera de convertir las calles y plazas en lugar de encuentro alrededor de la cultura. Korterraza ofrece a todos

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 334700 KULTURA EKINTZA

hautaketa erreproduzitzeko aukera. 2022ko ekitaldian 42 proiektzio egin dira Arabako 38 herritan. Kalitate handiko film laburrak eman dira, Arabako zinemagile asko egon dira eta euskarazko obrak ikusi ahal izan dira. 2.750 pertsona inguru joan ziren film laburrez disfrutatzen. Tipologiari dagokionez, datuak aurreko edizioetako antzekoak izan dira generoari dagokionez, hau da, gehienak emakumeak izan dira, % 60 inguru. Adinari dagokionez, adin tarte guztietako pertsonak parte hartu dute, eta haur ugari egon dira Korterraza Txiki izeneko saioetan. Horrez gain, 65 urtetik gorako pertsonak ere parte hartu dute, zeinak aurreko bi urteetan ez baitziren asko izan. Gainera, jaialdiak bere ingurumen konpromisoa berretsi zuen, eta 2022an Korterraza Arabak egindako 42 proiektzioak Erronka Garbia ekitaldi jasangarri gisa ziurtatu zituen.

Bestalde, **Larunbat Musikalak** formatu txikiko kontzertu eta ekitaldien zikloa da, batez ere Arte Ederren Museoan egiten dena. Hala ere, 2022an, zarzuela komiko bat ere aurkeztu zen Fontechako Orgaztarren Dorrean. Ziklo hori urtean zehar garatzen da, eta 2022an zazpi kontzertu izan ditu; horietako batek Antzinako Musika Astearen programazioa osatu zuen. 673 ikuslek gozatu zuten programa horretaz. Publikoaren % 60 baino gehiago emakumeak izan dira. Zikloan hamabi emakumek eta bederatzi gizonak parte hartu dute. Zazpi kontzertu horietatik seik emakumeren bat izan dute kontratatutako artisten artean. Gainera, hiru kontzertu emakumeek bakarrik osatutako taldeek eman dituzte.

Jarduera guztiak gutxienez elebitasunaren ikuspuntutik landu dira eta lurralde eragileek hala eskatu duten guztietan euskaraz egin dira oso-osorik.

**Lerro honen bigarren helburua da kultura programazioan lankidetzaren publikoa eta pribatua sustatzea.**

2022an, hiru **dirulaguntza deialdi** jarri ziren

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 334700 ACCIÓN CULTURAL

los pueblos la oportunidad de reproducir en cada pueblo, al aire libre, la selección de cortos que ha realizado. En el ejercicio 2022 se han realizado 42 proyecciones en 38 localidades alavesas, de cortometrajes de gran calidad, con una destacada presencia de cineastas alaveses y con obras en euskera. Cerca de 2.750 personas se acercaron a disfrutar los distintos cortometrajes. Respecto a la tipología, los datos se mantienen similares a los de ediciones anteriores en cuanto a género, con una mayor presencia de mujeres (en torno al 60%). En cuanto a la edad, ha habido participación de personas de todas las franjas, con especial presencia de numeroso público infantil en las sesiones de Korterraza Txiki. El certamen también ha recuperado la participación de personas de más de 65 años, más remisas en los dos veranos anteriores. Además, el festival ha reafirmado este año su compromiso medioambiental y Korterraza Araba ha certificado en 2022 las 42 proyecciones como evento sostenible Erronka Garbia.

Por su parte, **Sábados Musicales** es el ciclo de conciertos y eventos de pequeño formato que tiene lugar principalmente en el Museo de Bellas Artes, aunque este año también se presentó una zarzuela cómica en la Torre de los Orgaz en Fontecha. Este ciclo se desarrolla a lo largo del año y en 2022 ha contado con siete conciertos, uno de ellos complementaba la programación de la Semana de la Música Antigua. 673 espectadores han podido gozar de este programa, el público ha estado compuesto por más de un 60% de mujeres. En cuanto a los profesionales que han participado en el ciclo, han sido 12 mujeres y 9 hombres. 6 de estas 7 citas han contado con alguna mujer entre los artistas contratados. Además, 3 de los conciertos los han realizado agrupaciones formadas solo por mujeres.

Todas las actividades han estado contempladas como mínimo desde el bilingüismo, y, siempre que los agentes territoriales así lo han demandado han sido desarrolladas exclusivamente en euskera.

**El segundo objetivo de esta línea es fomentar la colaboración pública y privada en la programación cultural**

En el 2022, se pusieron en marcha tres

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 334700 KULTURA EKINTZA

abian, sektoreari laguntzeko.

Alde batetik, norgehiagoka bidezko dirulaguntza lerro bat onartu zen zabalkunde eta erakusketa proiektu kulturalak abian jartzeko, sektoreko elkarte, enpresa eta profesionalei zuzendutakoa.

223.603 euro bideratu ziren horretarako guztira. Zenbateko horri esker, guztira 27 kultura proiektu lagundu ziren (arte plastikoak, eszenikoak, musikalak, etab.), 2.500 eurotik 12.000 eurora bitarteko dirulaguntzekin.

Bestalde, beste dirulaguntza lerro bat onartu zen Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñu enklabe udalei eta kuadrillei laguntzeko, 2022ko ekitaldian zehar kultura ekimenak garatzeko.

Kasu horretan, 80.000 euroko aurrekontua egon zen. Guztira 79.629 euro bideratu ziren 23 proiektu abian jartzen laguntzeko, eta proiektu bakoitzari 7.000 euroko gehieneko zenbatekoa eman zitzaion.

Azkenik, dirulaguntzen deialdien esparruan, lerro berri bat aipatu behar dugu; izan ere, 2022an, Arabako Lurralde Historikoko hiriguneetatik kanpoko kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntza bat jarri zen abian. Lerro hori Next Generation EU funts europarrek finantzatu dute, eta zuzkidura hiru modalitatetan banatuta dago, laguntza hori jaso dezakeen hartzaileren tipologiaren arabera.

Jasotako bederatzi eskaeretatik, hiru kultura proiektu onartu dira, bat modalitate bakoitzeko. Deialdiak, guztira, 108.187,55 euroko aurrekontua izan zuen, eta, azkenean, 91.103,40 euro esleitu ziren. Beraz, 17.084,15 euro geratu ziren esleitu gabe. Kopuru hori ezin izan zaio beste erakunde bati esleitu, ez baita iristen diruz lagun daitekeen gutxieneko 25.000 eurora. Beraz, gutxieneko puntuazioa gaintzeagatik onartutako kultura programak egon arren, ezin izan dira diruz lagundu, nahikoa funts ez egoteagatik.

**Lerro honen hirugarren eta azken helburua**

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 334700 ACCIÓN CULTURAL

**convocatorias de subvenciones** con objeto de apoyar al sector.

Por un lado, fue aprobada una línea de subvenciones, en concurrencia competitiva, para la puesta en marcha de proyectos culturales de difusión y exhibición, dirigida a asociaciones, empresas y profesionales del sector.

Se destinaron un total de 223.603 euros. Con este importe fueron apoyados un total de 27 proyectos culturales de muy diversa índole (artes plásticas, escénicas, musicales, etc.) con ayudas que oscilaron desde los 2.500 euros a los 12.000 euros.

Por otro lado, fue aprobada otra línea de subvenciones con el objetivo de dar apoyo a ayuntamientos y cuadrillas del Territorio Histórico de Álava y enclave de Treviño para desarrollar iniciativas culturales durante el ejercicio 2022

En este caso, con un presupuesto de 80.000 euros, fueron destinados un total de 79.629 euros que apoyaron la puesta en marcha de un total de 23 proyectos, con un importe máximo concedido de 7.000 euros por proyecto.

Por último, en el marco de las convocatorias de subvenciones debemos citar una nueva línea para ampliar y diversificar la oferta cultural en áreas no urbanas en el Territorio Histórico de Álava, año 2022, financiada por fondos europeos Next Generation EU y cuya dotación está distribuida en tres modalidades en función de la tipología del receptor susceptible de recibir esta ayuda.

De las nueve solicitudes recibidas, han sido tres los proyectos culturales aprobados, uno por cada modalidad. La convocatoria asciende a un total de 108.187,55 euros, de los que finalmente se adjudicaron 91.103,40 euros. Así, quedaron 17.084,15 euros restantes sin asignar. Una cantidad que no puede adjudicarse a ninguna otra entidad dado que no alcanza al importe mínimo subvencionable de 25.000 euros. Por tanto, aun existiendo programas culturales aprobados por superar la puntuación mínima no han sido subvencionados por falta de fondos suficientes.

**El tercer y último objetivo de esta línea se orienta**

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 334700 KULTURA EKINTZA

### haurren eta gazteen garapenera bideratuta dago.

Kultura Ekintza Zerbitzuak “Antzerkia eskolan” proiektua babesten du.

1984tik lurraldeko ikastetxeetan antolatzen duten antzerkigintzako proiektu pedagogikoa da. Bere helburu nagusia da artea hezkuntzarekin eta gizartearekin lotzea, eta horregatik, bere ibilbidea ez da izan bakar-bakarrik ikuskizunak sortu eta banatzea, baizik eta publikoa sortu eta prestatu du hezkuntza arloarekin, artistekin eta inguruko elkarteekin lankidetzan.

### 3. LERROA Araba kultur erreferente eta jomuga gisa kokatzea kanpoan ezagutzera emanez

Hirugarren ardatza edo jarduketa lerroa Araba kultura erreferente gisa kokatzea da. Horretarako, Kultura Ekintza Zerbitzuaren bitartez Arabako kultura jardueran estrategikotzat jotzen diren eta lurraldea promozionatzen duten kultura jarduera opsutsuak finantzatzen dira.

2022an, lurralderako estrategikoak diren ekitaldiei babesa ematen jarraitu da, hala nola Gasteizko Jazzaldiari, Azkena Rock Festivalari eta Araiaiko Umirezko Antzerki Jaialdiari.

**Jazzaldia** 85.000 euroekin babestu zen, aurreko edizioan baino bi aldiz gehiago (40.000 euro). Berritasun gisa, 2022an jazz topaketa bat programatu zen Araian, uztailearen 8an, ekitaldi hori lurraldera eramateko bidea irekiz.

2022ko uztailean Gasteiz berriz ere jazzez bete zen jaialdiaren 46. edizioan. Dagoeneko hasitako lanarekin jarraituz, tokiko eta nazio mailako musikariek protagonismo handia izan zuten.

Jazzaldiari esker, berriz ere hiriburu eta probintziatik kanpoko bisitariak etorri ziren, babesletza horren helburu estrategikoak betez.

**Azkena Rock Festivalaren** erakunde kudeatzailearekin sinatutako babesletza kontratua

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 334700 ACCIÓN CULTURAL

### a el desarrollo de públicos infantiles y juveniles.

Desde el Servicio de Acción Cultural se apoya el proyecto El Teatro llega a la Escuela.

Se trata de un proyecto teatral y pedagógico desarrollado desde el año 1984 en los centros escolares del Territorio. Mantiene una clara vocación de vincular el Arte con lo educativo y lo social, por ello su trayectoria no se ha limitado a la creación y distribución de espectáculos, sino que se ha adentrado además en la creación y formación de público, en colaboración con el mundo educativo, los artistas y las asociaciones del entorno.

### LÍNEA 3. Situar a Álava como referente y destino cultural con proyección exterior

Un tercer eje, o línea de actuación, viene determinado por colocar Álava como referente cultural. Para ello, y a través del Servicio de Acción Cultural, se financian actividades culturales reconocidas como estratégicas en el desarrollo cultural de Álava y que redundan en la promoción del Territorio.

En el 2022, se ha mantenido el apoyo patrocinado a eventos estratégicos para el territorio como son el Festival de Jazz de Vitoria, el Azkena Rock Festival y el Festival de Teatro de humor de Araia.

El **Festival de Jazz** se patrocinó con 85.000 euros, una cifra que duplica a la de la edición anterior, que fue de 40.000 euros. Como novedad en 2022 se programó un encuentro de Jazz en Araia el 8 de julio, abriendo la senda de llevar este evento al Territorio.

En julio de 2022 se volvió a llenar la ciudad de Vitoria del jazz en su 46 edición. En línea con la apuesta ya iniciada los músicos locales y nacionales tuvieron un protagonismo muy notable.

El Festival de Jazz volvió a servir de polo de atracción para que llegaran visitantes de fuera de la capital y provincia cumpliendo con los objetivos estratégicos para los que creó este patrocinio.

El contrato de patrocinio firmado con la entidad gestora del **Azkena Rock Festival** ha ascendido a

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 334700 KULTURA EKINTZA

130.000 eurokoa izan zen 2022ko edizioan. Jaialdiaren XX. urteurrena zen, eta hori ospatzeko jaialdia Mendizabalara itzuli zen, rock jaialdi finkatu horren espiritua berreskuratuz. Aurreko urteetako baino askoz aurrekontu handiagoa izan zuen, baina gastu mailari eta 2022ko proiektu bereziari egokituta.

Azkena Rock Festivalak, bere urteurrena zela eta, 2022an beste egun bat izan zuen, osteguna, sei agertokitan. Gainera, berritasun gisa, **Araba ARF Tour** izeneko programazio berria aurkeztu zen: doako lau kontzertu eman ziren Arabako bi herritan (zehazki Ribabellosan eta Guardian), Azkena Rock Festivalerako bidea ireki zutenak.

Ekitaldira 48.000 pertsona joan ziren, 2019ko edizioan baino % 33 gehiago. Antzeko ezaugarrietakoak izan ziren, bi urte eman ondoren edizio berezietan, eta horietatik % 41 emakumeak izan ziren. Aipatzekoa da edizio horretan emakumeek rockean duten presentzia aldarrikatu nahi zela. Horretarako, larunbatean hiru artista mitikoren emanaldiak egon ziren: Patti Smith, Emmylou Harris eta Suzi Quatro.

Azkenik, **Araia-Asparrenako Umore Jaialdia** aipatu behar da. Kasu honetan, Arabako Foru Aldundiaren partaidetza egonkor mantendu da azken edizioetan bezala, 25.000 euroekin 29. edizioa martxan jartzeko laguntza gisa.

Abuztuko lau egunetan Araiako kaleak umorez eta antzerkiz bete ziren, eta zehazki, 13 ikuskizun antolatu zituzten. Aurreko urtean baino lau gehiago.

Zifra horiek erakusten dute beharrezkoa dela horrelako proiektuen alde egiten jarraitzea, izan ere, orokorrean kultura eta bereziki Araba garapeneko eta gizarte eraldaketako motor ekonomiko bihurtzen dituzte.

### **II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA**

#### **1. HELBURUA Sorkuntza babesteko neurriak bultzatzea, emakumeek kulturaren duten papera sustatuz eta ikusaraziz.**

##### **1.1. Ekintza. Arte eszenikoen tailerra**

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 334700 ACCIÓN CULTURAL

130.000 euros en la edición 2022. El Festival celebraba este año su XX. Aniversario volviendo a Mendizabala y recuperando el espíritu de este asentado festival de Rock. Un presupuesto muy superior al establecido en los años precedentes pero adaptado al nivel de gasto y al especial proyecto de 2022.

El Azkena Rock Festival, con motivo de su aniversario, ha contado este año con un día más, el jueves, en seis escenarios distintos. Además, como novedad este año se ha presentado la nueva programación de **Araba ARF Tour**, consistente en cuatro conciertos gratuitos en dos localidades alavesas que abrirían la ruta al Azkena Rock Festival, en concreto en Rivabellosa y en Laguardia.

El evento contó con la asistencia de 48.000 personas, un 33% más que en la edición de 2019, de similares características después de dos años de ediciones especiales, de las que el 41% fueron mujeres. Cabe mencionar que en esta edición se quiso reivindicar la presencia la mujer en el rock, con la actuación de 3 artistas míticas en la jornada del sábado: Patti Smith, Emmylou Harris y Suzi Quatro.

Por último, hacer una reseña del **Festival de Humor de Araia-Asparrena**. En este caso la participación económica de la Diputación Foral de Álava se ha mantenido estable en la línea de las últimas ediciones, 25.000 euros, como apoyo a la puesta en marcha de su 29ª Edición.

Durante cuatro días de agosto las calles de Araia se inundan de humor y teatro; concretamente 13 actuaciones. Cuatro más que el año anterior.

Unos números que avalan la necesidad de seguir apostando por proyectos de esta envergadura que suponen situar la cultura, en general, y Álava, en particular, como motores económicos de desarrollo y transformación social.

### **II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS**

#### **OBJETIVO 1. Impulsar medidas de apoyo a la creación, fomentando y visibilizando el papel de la mujer en la cultura.**

##### **Acción 1.1. Taller de artes escénicas**

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 334700 KULTURA EKINTZA

### *1.1.1. Matrikulatutako emakumezko ikasleen ehunekoa*

Emakumeak gizonak baino askoz gehiago dira; izan ere, % 71 eta % 29 dira, hurrenez hurren.

### *1.1.2. Kontratutako emakumezko irakasleen ehunekoa*

TAEko irakasleen talde egonkorrean 11 irakasle daude, eta horietatik sei emakumeak dira; hau da, %71.

## **1.2. Ekintza. Dirulaguntza izendunak**

### *1.2.1. Genero klausulak dituzten kontratuen, hitzarmenen eta abarren ehunekoa*

Pertsonengan eragina duten dirulaguntza izendun guztietan genero klausulak sartu dira.

### *1.2.2. Egikaritutako ehunekoa: emandako dirulaguntzen zenbatekoaren eta justifikatutakoaren arteko erlazioa*

Aurreikusi eta esleitutako aurrekontu guztia egikaritu da ezarritako terminoetan, erakunde eskatzaileek justifikazioak egin eta gero.

## **2. HELBURUA Kultura eskaintza propioa garatzea, programazioek emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dezaten sustatuz, bai eta lurraldearen ikuspegitik ere.**

### **2.1. Ekintza. Eskaintza kultural propioa programatzea**

#### *2.1.1. Programatutako zikloen kopurua*

Kultura Ekintza Zerbitzuak zortzi ziklo programatu ditu, eta 161 jarduketa jarri dira martxan guztira.

#### *2.1.2. Berdintasuna. Emakume sortzaile programatuen ehunekoa*

Programatutako jarduera guztiek oreka mantentzen dute programatutako emakume kopuruari dagokionez, parte hartzen duten artisten % 40 baitira.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 334700 ACCIÓN CULTURAL

### *1.1.1. Porcentaje de alumnado femenino matriculado*

La presencia femenina es notablemente superior, contabilizándose un 71% frente al 29% de hombres.

### *1.1.2. Porcentaje de profesorado femenino contratado*

El profesorado estable del TAE está formado por docentes, de los cuales 6 son mujeres, esto es el 7

## **Acción 1.2. Subvenciones nominativas**

### *1.2.1. Porcentaje de convenios, acuerdos, etc. con cláusulas de género*

En todas las subvenciones nominativas que tienen impacto sobre personas se han introducido cláusulas de género.

### *1.2.2. Porcentaje ejecutado: relación entre el importe de subvenciones concedidas y el justificado*

El 100% del presupuesto previsto y consignado ha sido ejecutado en los términos previstos una vez realizadas las justificaciones por las entidades solicitantes.

## **OBJETIVO 2. Desarrollar una oferta cultural propia, promoviendo que las programaciones incluyan una presencia equilibrada de mujeres y hombres y desde el punto de vista territorial.**

### **Acción 2.1. Programación de oferta cultural propia**

#### *2.1.1. Número de ciclos programados*

Se han programado 8 ciclos programados desde el Servicio de Acción cultural se han puesto en marcha un total de 161 actuaciones.

#### *2.1.2. Igualdad. Porcentaje de mujeres creadoras programadas*

El conjunto de actividades programadas mantiene un equilibrio en cuanto al número de mujeres programadas, siendo estas un 40% de los artistas participantes.

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 334700 KULTURA EKINTZA

*2.1.3. Lurralde oreka. Jarduerak egiten dituzten udalerrien ehunekoa*

Lurraldearen % 92,45era baino gehiagora iritsi dira jarduerak.

### **3. HELBURUA Lankidetzaren publikoa eta pribatua sustatzea kultura programazioan, programazioetan emakumeen eta gizonen esku hartze orekatua bultzatuz.**

#### **3.1. Ekintza. AFaren presentzia ALHrentzat interesekoak diren ekimen kulturaletan**

*3.1.1. Lagundutako hedapen proposamen artistikoen kopurua*

Ez dago daturik.

*3.1.2. Berdintasuna. Emakume sortzaile programatuaren ehunekoa*

Ez dago daturik.

#### **3.2. Ekintza. Jarduera kulturalak egiteko dirulaguntzen deialdiak**

*3.2.1. Egikaritutako ehunekoa: emandako eta onuradunek justifikatutako dirulaguntzen zenbatekoa*

Dirulaguntza deialdien % 90 egikaritu da.

*3.2.2. Euskaraz edo elebidun egindako ekintzen ehunekoa, guztizkoaren aldean*

Ez dago daturik.

*3.2.3. Genero klausulak dituzten oinarrien ehunekoa*

Deialdien % 100ek genero klausulak barne hartu dituzte.

### **4. HELBURUA Haur eta gazteez osatutako publikoak sortzea.**

#### **4.1. Ekintza. "Antzerkia eskolan" programaren programazioa**

*4.1.1. Antzetzutako funtzio kopurua*

2022an, guztira 42 antzerki emanaldi egin ziren, guztiak euskaraz, B eta D ereduak ikastetxeetan.

*4.1.2. Parte hartu duten ikasleen kopurua*

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 334700 ACCIÓN CULTURAL

*2.1.3. Equilibrio territorial. Porcentaje de municipios en que se celebran actividades*

Se ha llegado a más del 92,45% del Territorio.

### **OBJETIVO 3. Fomentar la colaboración pública y privada en la programación cultural, impulsando un protagonismo equilibrado de mujeres y hombres en las programaciones**

#### **Acción 3.1. Presencia de DFA en iniciativas culturales de interés para el THA**

*3.1.1. Número de propuestas artísticas de difusión apoyadas*

No se tienen datos.

*3.1.2. Igualdad. Porcentaje de mujeres creadoras programadas*

No se tienen datos.

#### **Acción 3.2. Convocatorias de subvenciones para actividades culturales**

*3.2.1. Porcentaje ejecutado: importe subvenciones concedidas y justificadas por beneficiarios/as*

El porcentaje ejecutado de las convocatorias de subvenciones ha sido del 90%.

*3.2.2. Porcentaje de acciones desarrolladas en euskera o bilingües respecto del total*

No se tienen datos.

*3.2.3. Porcentaje de bases con cláusulas de género*

El 100% de las convocatorias han incluido cláusulas de género

### **OBJETIVO 4. Desarrollar públicos infantiles y juveniles.**

#### **Acción 4.1. Programación de El Teatro llega a la escuela**

*4.1.1. Número de funciones representadas*

Durante el 2022 se realizaron un total de 42 representaciones teatrales, todas ellas en euskera en centros educativos con modelos B y D.

*4.1.2. Número de alumnas y alumnos participantes*

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 334700 KULTURA EKINTZA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 334700 ACCIÓN CULTURAL

34 ikastetxetara joan ginen, eta 2.226 neskatok eta 2.238 mutikok ikusi zituzten antzerkiak.

### *4.1.3. Parte hartu duten irakasleen kopurua*

195 emakume irakasle eta 60 gizon irakasle. Proiektua egiten hamaika emakumek eta bost gizonek parte hartu dute.

## **5. HELBURUA Araba kultur erreferente eta jomuga gisa kokatzea kanpoan ezagutzera emanez.**

### **5.1. Ekintza. Araba kanpoan sustatzeko kultura ekitaldiak finantzatzen laguntzea**

#### *5.1.1. Formalizatutako babes kontratuen kopurua*

Hiru ekitaldi babesteko kontratuak formalizatu ziren: Jazzaldia, Azkena Rock jaialdia eta Araia-Asparrena Umore Jaialdia.

#### *5.2.2. Genero klausulak dituzten kontratuen ehunekoa*

Kontratuen % 100ek genero klausulak barne hartu dituzte.

Se acudió a 34 centros y fueron espectadores 2.226 alumnas y 2.238 alumnos.

### *4.1.3. Número de profesores y profesoras que toman parte*

195 profesoras y 60 profesores. En cuanto a los profesionales que han participado en la realización del proyecto han intervenido 11 mujeres y 5 hombres.

## **OBJETIVO 5. Situar a Álava como referente y destino cultural con proyección exterior.**

### **Acción 5.1. Colaboración en la financiación de eventos culturales que promocionen Álava en el exterior**

#### *5.1.1. Número de contratos de patrocinio formalizados*

Se han formalizado contratos de patrocinio de tres eventos: el Festival de Jazz, el Azkena Rock y el Festival de Humor de Araia-Asparrena.

#### *5.2.2. Porcentaje de contratos con cláusulas de género*

El 100% de los contratos han incluido cláusulas de género.